

Foru Aldundiak dirulaguntza eman du gizarte zerbitzuen arloko elkarteen lokalak zaharberritzeko eta haietarako ekipamenduak eskuratzeko

Gasteiz, 2019ko maiatzaren 31. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (GOFE), Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Sailari atxikitako erakunde autonomoak, onespena eman dio gizarte zerbitzuen arloan diharduten Arabako elkarte eta fundazioentzako deialdiari. Laguntzak elkarte eta fundazio horien lokal sozialak zaharberritzen eta egokitzen laguntzeko dira, bai eta beren jarduerak eta programak gauzatzeko behar duten ekipamendua eskuratzeko ere. GOFEk 30.000 euro bideratu ditu deialdi horretarako.

Berriki, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak beste bi laguntza deialdi onetsi ditu gizarte zerbitzuen eremuko erakundeentzat. Haietarik bat 500.000 euroz hornitua dago eta xedetzat du elkarte horiek mantentzen laguntzea eta jarduerak egitea 2019. urtean. Bestea, 22.000 euroz hornitua dago, eta gizarte zerbitzuekin zerikusia duten ikastaroak, jardunaldiak, biltzarrak eta mintegiak diruz laguntzeko da.

Deialdi horien funtsezko xedea da irabazteko xederik gabeko elkarteen sarearekin lankidetzan aritzea, Arabako Lurralde Historikoan bizi diren eta gizarte zerbitzuen arreta jasotzen duten pertsonen bizi kalitatea hobetzeko, eta komunitate bizitzan parte har dezaten eta guztiz integra daitezen laguntzeko.

GOFeko Administrazio Kontseiluak orain onetsitako deialdia lokal sozialak birgaitzera, eraberritzera, hobetzera edo egokitzera bideratuta dago, bai eta elkarteen lokaletako ekipamendua eta altzariak erostera edo konpontzera ere.

Eskaerak aurkezteko epea 15 egun baliiodunekoa izango da, deialdi hau Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean (ALHAO) argitaratu ondoren.